Maketazioa eta inprimaketa: Txemisa

AURKEZPENA

Azken aldian, Europar Batasuna, arau desberdinen bidez, ingurugiro babesaren alde lan egiten ari da, gizarte, ekonomia eta ingurugiro ikuspuntu batetik, garapen orekatu eta jasangarri bat lortzeko helburuarekin.

Europako Gizarte Funtsaren helburu garrantzitsuetako bat ingurumenaren babesa eta zainaza da, barne estatuen aktibitateen artean integratzeko asmoarekin.

Zentzu honetan, Mercabilbao S.A-k **ingurugiro jardunbide egokien eskuliburu** hau egin du, merkatuko erabiltzaile desberdinentzat. Eskuliburu honetan bildutako edukiek ikuspuntu integratzaile eta zabaltzaile bat dute eta era berean beste enpresa desberdinek sortutako dokumentu eta manualetan oinarrituta dago. Horrela modu orokor batean, langileek behatu beharreko ingurugiro jarrera desberdinetan sakontzea lortzen da, laneko ingurumen jarrerak aldaraziz.

Eskuliburu honetan, aurki ditzakezun jardunbideak oso errazak eta erabilgarriak dira, beraien sinpletasunagatik eta lortzen diren emaitza harrigarriengatik, horrela denon artean helburu jakin bat lortzen laguntzen dugu; Garapen Jasangarria.

Bertoko Ingurumena Zaindu

Ezagutu zure lantokiko **ingurugiro arazoa** (sortutako hondakin motak, gutxitzeko aukerak, betebeharreko ingurugiro helburuak...) horretarako ingurumen kudeaketa sistemako arduradunari galde diezaiokezu edo bestela zure Kabuz informazioa bila dezakezu. Errespetatu ezarritako **ingurugiro helburuak** eta ezagutu bakoitzak hoiien lorpenean dugun garrantzia.

Lanean higiene on bat mantendu, elikagaiak kutsa ez daitezzen. Honek, lantokian erretzea, jatea, gaixotasun kutsagarriekin lan egitea, sor daitezkeen zauriak ez kontrolatzea, laneko arropa ongi ez erabiltzea... bezalako gauzak inplikatzeko dituzte.

1. **Hiru B-en** aurrean duzun jokaera zaindu. Hondakinen sorrera **murriztu** edo behitu. **Berrerabili** papela eta bulegoko materiala. **Birziklatu** eta hondakinen gaikako bilketan parte hartu; papela, pilak.
2. Jakinarazi edukiontziren bati etiketa falta bazaio.
3. Ahal den neurrian, **hondakin organikoak**, elikagai industrietako hondakin guztien zati handi bat direnez, **animali elikadurarako edo ongari organikoak sortzeko erabili**.
4. Ibilgailuak egoera egokian mantendu, **horrela gas kutsakorren emisio atmosferikoak murrizteko**.
5. **Ingurugiro arriskuen analisiak burutu**. Sute, kontrolgabeko isurkin, uholde etab-en ondorioz sor daitezkeen ingurugiro inpaktuak prebenitzeko.
6. **Menpeko enpresei**, ingurumen jardunbide egoki, merkatuan aurki

daitezkeen produktu arriskutsu eta beraien lanean izan beharreko jarreten gaineko informazioa eman.

7. Iradokizun buzoien bidez, ingurugiroaren hobekuntzarako proposamen berriak jaso.
8. Langileei, hondakinen murrizketarako eta enpresaren kutsatze maila jeisteko plangintzaren berri eman.
9. **Merkatuko langile, hornitzaile eta kide guztiak hondakinen kudeaketa egokian eta gaikako bilketan parte hartzera bultzatu.**
10. Erosketak egiterakoan kontuan izan beharko dira ingurumen irispideak. Ingurugiro abantailak dituzten produktuak aukeratu (ekoetiketa dutenak, hondakin **gutxiago sorteen dutenak, gehiago irauten dutenak, sustantzia arriskutsu gutxiago sorteen dituztenak, energia gutxiago kontsumitzen dutenak, berrerabiltzeko edo birziklatzeko errazak direnak, birziklatutako materialez eginak daudenak, sustantzia toxikorik ez dutenak...**)
Noizbehinka iragarki taulan agertzen diren kartelak irakurri (enpresa barneko komunikatuak, larrialdi planak...)
11. Hornikuntzan ingurumen irispideak kontuan izan, ingurugiro ziurtagiria duten hornitzaile, produktu eta materiak aukeratu.
12. **Elikagai osasuntsuen kontsumoa bultzatu**, dieta mediterranearra esaterako.
13. **Baimendutakoak baino txikiagoak diren arrainak baztertu.**

EGUNEROKO BIZITZARAKO 10 JARDUNBIDE EGOKI

1. **MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATU** ahal den guztia.
2. Beharrezkoa den **ENERGIA** kontsumitu, alferrik galdu gabe.
3. Sailkatu **HONDAKINAK** eta eraman dagokien edukiontzira.
4. Ez erabili ibilgailua beharrezkoa ez denean.
5. Ez erabili **ETXETRESNA ELEKTRIKOA** guztiz kargatu gabe.
6. Ez erabili **HUSTUBIDEAK** zure hondakinak botatzeko.
7. **ZARATA** ere kutsadura mota bat da. Saiatu gutxitzen.
8. **URA** aurrezten saiatu.
9. Ez erabili ingurugiroa **ERASOTZEN** duten **PRODUKTUAK**.
10. Zure **HONDAKIN ARRISKUTSUAK**, baimendutako enpresa batek kudeatu behar ditu.

INGURUGIRO PRAKTIKA EGOKIAK

Energia: kontsumo arduratsua

Argiztapena

- ✓ **Itzali argiak** erabiltzen ez direnean (komun, bulegoetan...), energia kontsumoa murrizten laguntzen du.
- ✓ **Fluoreszenteen energia** kontsumo handiena, pizterakoan izaten da, beraz ez da komeni 30 minutu baino lehenago berriz piztu behar diren lekuetan itzaltzea.
- ✓ **Argi goriak sodiozko lanpara edo fluoreszenteengatik aldatu.** Horrela argi kontsumoaren bostena murriztu daiteke.
- ✓ **Eguzki energia ahalik eta gehien aprobetxatu.**
- ✓ Komun edo aldageletan etengailu berriak jarri behar direnean bakarrik itzaltzen direnei eman lehentasuna.
- ✓ Ahal den neurrian mugimendua nabaritutakoan pizten diren argiztapan sistemak jarri.
- ✓ Amaitutako fluoreszenteak gero birziklatzera eramateko leku batean gorde.



Informatika ekipiak

- ✓ Energetikoki eraginkorak diren informatika ekipiak erabili eta energia aurrezteko moduan konfiguratu.
- ✓ Ordu bat baino gehiagoan erabili behar ez dituzun informatika ekipiak itzali.
- ✓ **Erabilera gabeko** kamera, ordenagailu, fotokopiagailu eta bestelako elektronika **aparatuak deskonektatu.**
- ✓ **Pantaila babeslea, pantalla beltz gisa konfiguratu**, energia aurrezteko. Modu honetan funtzionatzen hasteko 10 minutuko denbora tartea gomendatzen da.

Istalazioen mantentzea

- ✓ Aldizka **berogailu eta hozketa** ekipiak berrikusi.
- ✓ Aldizka entxufe eta ur eta elektrizitate instalazio konexioak berrikusi, akatsik egon ez dadin.
- ✓ Tutu isolamendurako babesak aldizka begiratu, ihesak eta kontsumo handiak detektatzeko.



- ✓ **Kontsumo baxuko lanparak** erabili.
- ✓ "Halon" gabeko **itzalgailuak** erabili.
- ✓ Berogailu eta elektrizitate instalazioetan, **tenporizadore eta termostatoak** ezarri.
- ✓ **Erabili beharrik ez dagoenean, itzali giro egokituko sistemak** eta erabiltzen dituzunean modu arduratsuan egin. Neguan temperatura egokia 20 gradukoa da egunez. Udan aire egokitua gehiegi erabiltzea ez da ona, energia asko kontsumitzeaz gain, ozono geruza kaltetzen duten hainbat gas askatzen dituelako.

Garbiketa

- ✓ **Garbitu itzazu aldizka lehio eta lanparak.** Argiztapan sistemak ere garbitu, zikintasunak errendimendu hoberena oztopatu ez dezan. Argi sistemetan hautsa pilatzeak, argiztapenean %10 galtzea eragiten du.



Ura: Ondare uria

Langiteen urtean ura aurresteko informazio eta formazio ihardunaldiak burutu

Ura arresteaz gain, estolderiara kutsatuta heltzea saihestu behar da. Horretarako:

Ez uzi gasolina, olio eta beste likido kaltegarri batzuk urarekin nahastea.

Ez bota etxeko produktu kimikoak arrasca edo hustubideetatik.

Garbiketan, ahalik eta lixiba eta garbikari gutxien erabili.

Garbiketa

- ✓ **Ura alferrik galtzea saihestu:** derrigorrezkoa dena erabili eta cisterna eta txorrotak itxita daudela ziurtatu.
- ✓ Asfaltatutako biltegi eremuak, garbitzaile mekaniko bidez garbitu ura aurrezteko.
- ✓ Komunetan ur presioa kontrolatzen duten sistemak eta difusoreak jarri, ur kontsumo gutxiagorekin garbiketa egokiago bat egitea uzten duelako.

Komunak

- ✓ Pultsagailu bikoitzeko komunetan, ahal den neurrian **descarga partziala** erabili. (Pulsgailu hori egoki erabiliz gero, kontsumoa %50ean jeitsiko litzateke).
- ✓ Gogoratu pulsgailu bakarreko zisternetan, botota bi aldiz jarraian sakatuz gero ur jausia eteten dela, horrela ur gutxiago kontsumituz.
- ✓ **Txorrotak ongi zarratzeak** ura aurrezten laguntzen du. Segunduko tanta bat eguneko 30 litro bilakatzen da, gutxi gorabehera eguneko ur kontsumoaren %10a.
- ✓ **Komun zein txorrotetan, ihes bat aurkitzen baduzu ahalik** eta azkarren jakinarazi arduradunari.



Hondakinak: Murriztu, Berrerabili eta Birziklatu

Zertarako murriztu hondakinak?

1. Berriztagarriak ez diren baliabideak zaintzeko.
2. Energia aurrezteko.
3. Aire, ur eta lurzoruko kutsadura murrizteko.
4. Berotegi efektuaren sortzaileak diren, CO2 isuketak murrizteko.
5. Lanpostuak sortzeko.



Papela

- ✓ **Saiatu alde batetik bakarrik erabilitako papela berrerabiltzen.** Inprimagailu, fotokopiagailu eta fax makinaren ondoan kutxa bat jarri dezakezu eta enpresa barneko dokumentuen kopiak egiteko erabili dezakezu. Enpresa barneko zein kanpoko erlazioetan korreo elektronikoa erabili.
- ✓ Ahal den neurrian, **papel birziklatua erabili.** Fotokopiagailu eta inprimagailuetan aparteko arazoak sortzen ez dituzten kalitate oneko papel birziklatuak daude.
- ✓ **Erabilitako gutunazalak enpresa barneko harremanetarako berrerabili.** Kutxa batean utzi ditzakezu gero berriz berrerabiltzeko.
- ✓ **Berrerabili hutsik dauden karpetak.** Arkatzez idaztea gomendatzen da berrerabili ahal izateko. Kanpoko aldea zaharkituta baldin badago eman iezaiezu vuelta.

Informatika ekipoak

- ✓ Inprimagailuetako **tinta kartutxoak** aldatzen direnean, zaharrak horretarako prestatutako edukiontzietara bota.
- ✓ Inprimagailuek alde bietara inprimatzeko aukera badute, bultzatu gainontzeko langileak horretara.
- ✓ **Erabili ordenagailua dokumentuen irakurketarako.** Zuzenketa ortografiko eta gramatikak zure ordenagailuaren pantailatik egin.
- ✓ **Ordenagailua papelaren ordean erabili dokumentuak** bidaltzeko orduan eta bestelako komunikazioetan.
- ✓ **Beharrezkoak diren disketeak erabili,** behar denean artxiboak konprimituz.

Bulego materiala

- ✓ **Erabili zure laneko materialak agortu arte;** boligrafoak, borragomak, kuadernoak.
- ✓ Ingurugiro eta osasunean efektu kaltegarriak ez duten produktuak aukeratu: energia kontsumo baxua, zarata murrizketa, ozonoa sorteen ez duten inprimagailuak.
- ✓ Birkargatzeko boligrafo, pila, tinta kartutxo etab-ei lehentasuna eman.
- ✓ Epe luzekoak diren eta bizitzaren amaieran hondakin kaltegarri bihurtzen ez diren produktuak aukeratu.

Kafe eremua

- ✓ **Hondakinak murrizteko forma on bat, erabilera bakar bateko produktuak gutxitzea da,** saiatu plastikozko plater, edalontzi eta mahai tresnak ez erabiltzen. Ontzi bakoitza behin baino gehiagotan erabili (edalontziak, botilak...). Egokiagoa da beirazko edalontziak erabiltzea plastikozkoak baino.
- ✓ Sailkatu hondakinak, ongi desberdintutako edukiontzien bidez.
- ✓ Ontzi bakoitzean bota beharreko materiala zein den adierazten duten kartelak jarri.
- ✓ Fabrikatzaileak jarritako mantentze argibideak jarraitu etxetresna elektrikoetan (hozkailu, mikrouhin...).



Garbiketa

- ✓ Instalazioen garbiketan erabiltzen diren **produktu kimikoak** zaindu, ingurumenean kalte gutxien dutenak aukeratuz. Toxitate gutxiagoko eta biodegradagarriak diren produktuak aukera itzazu, baina beti ere garbitasuna ziurtatuz.
- ✓ **Garbiketa produktuak** erabiltzean fabrikatzailearen gomendioak jarraitu, ontzi utzekin zer egin jakiteko. Horrela produktuen kontsumo eta erabilera egoki batean parte hartuko duzu kutsadura handiago bat saihestuz.
- ✓ Erabiltzen dituzun **produktuen etiketetan**, bere erabilera egokirako beharrezkoa den informazioa agertu behar da; ingurumen eta segurtasun oharrak, produktua nola biltegitatu, iraungitze datak... Arretaz irakurri erabiltzen dituzun produktuen argibideak.
- ✓ CFC edo konposatu organiko lurrunkorrak dituzten **aerosoles** erabilera saihestu.
- ✓ Aireztatu lan eremua ahal den guztietan. Zabal itzazu **lehioak** beharrezkoa den denbora eta gero ziurtatu ondo itxita daudela.



Istalazioen mantentzea

- ✓ **Hondakin bakoitza dagokion edukiontzira bota.**
- ✓ Modu egokian adierazi edukiontzi bakoitza zertarako den. Jakinarazi edukiontziren bati etiketa falta bazaio.
- ✓ Produktu toxikoak biltegitatzen badituzu, ez toxikoetatik banandu.

Hondakin baten kudeaketa egokiarena ez sortzea da.

INGURUMENARI BURUZKO KURIOSITATEAK

Goritasunezko lanparek energiaren %5a bakarrik aprobetxatzen dute argitasunean, gainontzeko %95a bero gisa askatzen delako, inolako argi aprobetxamendu gabe.

Nekazaritza ekologikoak lurraren amankortasuna handitu eta ekosistemen nahiz laborantzaren ziklo naturala errespetatzen du.

Ate eta lehioetatik ihes egiten duen beroa egun osoan lehio handi bat zabal-zabalik edukiz gero galduko litzatekeen berotasunaren parekoa da.

Familia arrunt batek tona bat zabor sortzen du urtean. Kopuru horretatik, 150 kilo metalezko ontziak, plastikoa eta tetabrika dira.

Plastikozko poltsa simple bat, zabortegian lurperatuz gero, milioika urte beharko ditu desagertzeko eta erre egiten badugu aldiz, airera CO2 eta bestelako produktu toxikoak askatuko genituzke, berotegi efektua handiagotzen duten gasak konkretuki.

Papel berdina 15 aldiz birzikla daiteke. Erabilera guztietarako gogorra eta iraunkorra den papela birziklatu eta ekologikoa dago, egur pastatik sortua.

Papela birziklatua ezin hobea da osasunaren ikuspuntutik .

Papela tonelada bat sortzeko beharrezkoa da:

Beharrezko kantitatea	Kalitate goreneko papela	Kalitate arrunteko papela	Birziklatutako papela
ZUHAITZAK	 5,3 Ha	 3,8 Ha	Ez da zuhaitzik behar
URA	 440 m3	 280 m3	 1,8 m3
ENERGIA	 7600 kw/h	 4750 kwh	 2750 kwh

Ur tantak askatzen dituen txorrota batek, 9000 litro ur alferrik galtzen ditu urtean.

Planetako azaleraren %72a ura da, baina datu horrek gu nahastea eragin dezake. Izan ere, uraren %97a ur gazia da eta oso ur geza kantitate txikia geratzen da, gainera hortik %70a poloetan izoztuta aurkitzen da eta ur gezaren %1a bakarrik dago gizakiaren esku.

Hiru pertsona bizi diren etxe bateko txorrota guztietan aurrezkailuak jartzen baditugu, urtean 95.000 litro ur aurrezteko lortuko genuke.

Munduan 1.100 milioi pertsonak ez dute ur edangarriaren hornikuntza sistemarik eta 2.600 milioi ez dute saneamendu sistemarik.

Pertsona batek bizi ahal izateko egunean 2 litro ur bakarrik behar ditu baina uraren etxeko kontsumoa pertsonako eta eguneko 250 litrokoa da.

Lanera joateko autoa partekatzen duen pertsona bakoitzeko batez beste 1.000 litro erregai aurrezten dira urtean.

Pilak elementu toxikoz osatuta daude, bere osagaien %30ak ingurumenean eta osasunean kalteak sortzen dituzten elementuak direlarik. Birkarga daitezkeen pila batek 300 pila arrunt ordezkatu ditzake.

Merkurio kutsaduraren %35a etxeko zaborrekin nahastuta, kudeatzen diren bateriek sorteen dutela frogatuta dago. Arazoaren ikuspuntu zabalago bat izateko aipatu beharra dago, botoi pila batek (erlojuek erabiltzen dutena) 6,5 milioi ur litro kutsatu ditzakeela.

Zein izan da marmoken inbasioaren arrazoia?

Garraio eta industrien sortutako berotegi gases lurreko tenperatura eta horrekin batera itsasoko urarena handitzea eragiten dute. Tenperatura aldaketa honek marmokak nahastu egiten ditu eta umeak izateko kostara joan behar dutela ulertzen dute. Orain dela urte batzuk ia ez zen markokarik heltzen itsasertzerara ibai eta erreketako iristen zen ur gezak itsasoko ura hain gazia ez izatea eragiten zuelako eta marmokak oso ur gaziko lekuetan bizi ohi dira.

INGURUMEN DEFINIZIOAK

Garapen Jasagarria:

Hurrengo belaunaldiak euren beharrak asetzeko gaitasuna murriztu gabe, gaur egungo beharrak asetzen dituen garapen-eredua.

Ingurumen inpaktua:

Giza ekintzek ingurumenean eragiten dituzten ondorioak.

Ingurumen kudeaketa sistema:

Antolamoldeak, aktibitate plangintza, erantzukizunak, praktikak, prozedurak, prozesuak barne hartzen dituen eta enpresako ingurugiro politika garatu, ezarri, berrikusi eta egunean mantentzen duen, enpresako kudeaketa sistema orokorra.

Kutsadura:

Eremu konkretu batean, normala dena baino maila altuagoan eta ondorioz sistema ekologikoan kalteak eragin ditzakeen edozein materia edo kutsatzaile fisiko (zarata, erradiazioa, bibrazioak...) sortzea edo horrek izan ditzakeen ondorioak.

Birziklapena:

Produktio prozesu baten barnean hondakinen eraldaketa, bere jatorrizko erabilerrako edo beste erabilera batzuetarako.

Berrerabilpena:

Produktu bati beste erabilera bat ematea. Berrerabilpena hondakinak murrizteko planaren bigarren pausoa da eta ingurumena hobetzen laguntzen du. Adibidez, erabiltzen ez den ordenagailu eramangarri bat xake-makina bihurtu daiteke.

Balorizazioa:

Giza osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurugiroa kaltetzen duten metodoak erabili beharrik gabe, hondakinetatik lorturiko baliabideak aprobetxatzeko aukera ematen digan prozesua.

BALIABIDE ETA HONDAKINEN KUDEAKETA

ERABILITAKO BALIABIDE MATERILAK

Makinak eta ekipoak:

Kontserbazio kamarak, hozkailuak...

Lehengaiak eta kontsumitzeko materialak

Arraina, ura, fruta, barazkiak, produktuak, garbiketako materiala...

Istalazioak eta bestelakoak:

Elektrizitate instalazio, ur hartuneak eta klimatizazio sistemen beharra daukaten salmenta instalazioak, kontserbazio eta hozte instalazioak, bulegoak, aldagelak, komunak...

SORTUTAKO HONDAKIN ETA ISURPENAK

Hiri hondakinak

Gehienbat ontzi eta bilgarrietatik sortutakoak dira. Oso kantitate handitan sortzen dira, izan ere, bilgarriak merkatuko berezko hondakinak dira. Egur, papela, kartoi, beira, lata, plastiko eta deribatuak izan ohi dira eta jatorritik sailkatu eta dagokien edukiontzira isurtzen dira.

Organikoak

Animali eta barazki jatorriko produktuen manipulazioan sortutako hondakinak dira talde honetakoak, adibidez, fruta eta barazki hondarrak, arrainak, haragia... Hondakin hauen gehiengoa

Arriskutsuak

Kudeaketa berezi bat behar duten hondakinak dira. Garbiketako produktu kimikoak eta beraien bilgarriak, inprimagailuetako tinta kartutxoak, ekipo elektriko eta elektronikoak, pilak, erabilitako bateriak...

Ingurumen zarata:

Giza aktibitateek eragindako kanpoko zarata kaltegarria edo molestagarria, ibilgailuek, hegazkinek, trenak eta industriek sortutako zarata barne.

AUTOEBALUAZIOA

1. Zure lanean lehengai kontsumoaren eta sortutako hondakinei buruzko inbentariarik egiten ahal da? Horren gainean pentsatu eta balorazio bat egizu.
2. Baimendutako enpresen bidez kudeatzen ahal dituzu hondakin arriskutsuak? Adibide bat jarri.
3. Zure hornitzaileei zer nolako ziurtagiriak eskatzen dizkiezu? Kontuan izaten ahal dituzu ingurugiro ziurtagiriak?
4. Zure laneko ze ekintza edo produktuk uste duzu ingurugiroan kalte gehien sortzen duela? Aipatu lehenengo hirurak.
5. Zure lanean sortutako hondakinekin zerrenda bat egin.
6. Ezagutzen ahal dituzu sinbolo ekologikoak? Eta toxitate eta arrisku seinaleak? Birpasa itzazu eskuliburu honetan.
7. Zer egiten da kalitate kontrola gainditzeko ez duten produktuekin?
8. Instalazioetan ura aurrezteko gailurik al dago?
9. Ba al dakizu zer den ingurumen kudeaketa sistema bat? Zergaitik izango litzateke interesgarria zure enpresarentzat?

BIRZIKLAPEN IKURRAK

Moebius zirkulua

Erabiliena da. Materialen berrerabilpena eta birziklapena identifikatzeko erabiltzen da. Geziek birziklapeneko hiru atalak adierazten dituzte, bilketa, birziklatutako hondakin berri baten sorketa eta bilgarriak. Birziklatu daitezkeen edo material birziklatuz eginiko produktuetan bakarrik erabili daiteke.



Europako etiketa ekologikoa

Herrialde bakoitzean seinale desberdinak ez erabiltzeko sortu zen. Ingurugiro oso kriterio zehatzak betetzen dituzten eta kontsumitzeko egoera ezin hobean dauden produktuetan bakarrik erabili ohi da.



Puntu berdea

Bilgarriak kudeaketa sistema integratzaile batek bildu eta birziklatzen dituela adierazten du. Ikur honek fabrikatzaileak bilgarria birziklatu dadin eta kutsa ez dezan ordaindu duela adierazten du.



ARRISKUGARRITASUN IKURRAK

	<p>E Leherkarriak</p>	<p>Sailkaketa: Oxigeno gabe ere exotermikoki erreakzionatzen duten eta entsegu baldintza finkatuen arabera detonatu egiten duten substantzia eta prestakinak. Inklusio partzialean berotuta.</p> <p>Kontuan izan beharrekoa: Kolpeak, igurtziak, marruskadura, sua eta beroa saihestu.</p>
	<p>F Sukoia</p>	<p>Sailkaketa: 21°Ctik beherako sugar-puntua duten likidoak, baina oso sukoiak ez direnak, sutze handi baten eraginez erraz su hartu eta ondoren bai erretzen, zein gori mantendu daitezkeen substantzia eta prestakinak.</p> <p>Kontuan izan beharrekoa: Sugar eta bero iturrietatik urrun mantendu.</p>
	<p>F+ Oso sukoa</p>	<p>Sailkaketa: 0 °Ctik beherako sugar-puntua eta 35 °Ctako gehienezko irakite-puntua duten likidoak. Presio normalean eta ohiko tenperaturan, airean sukoiak diren gas edo gas nahasketak.</p> <p>Kontuan izan beharrekoa: Sugar eta bero iturrietatik urrun mantendu.</p>

	<p style="text-align: center;">C Karruskagarriak</p>	<p>Sailkaketa: Osasuntsu eta kalterik gabeko larruazalaren kasuan, larruazal ehuneko erabateko suntsipena.</p> <p>Kontuan izan beharrekoa: Begi edo azalarekin kontaktua saihestu, horretarako egokia de arropa erabiliz. Ez arnastu produktua zuzenean. Istripu edo ondoeza izanez gero berréala mediarengana joan.</p>
	<p style="text-align: center;">T Toxikoak</p>	<p>Sailkaketa: Kantitate txikiko inhalazio, irensketa edo larruazalaren bidezko absortzioa osasunerako erabat kaltegarri izan daiteke, batzutan heriotza ere eragin dezakeelarik.</p> <p>Kontuan izan beharrekoa: Giza gorputzarekin edozelako kontaktua saihestu. Ondoeza izatekoan medikuari bereala abisatu. Produktu hauek manipulatzekotan prozedura bereziak ezarri behar dira.</p>
	<p style="text-align: center;">T+ Oso toxikoak</p>	<p>Sailkaketa: Kantitate txikiko inhalazio, irensketa edo larruazalaren bidezko absortzioa osasunerako erabat kaltegarri izan daiteke, heriotza ere eragin dezakeelarik.</p> <p>Kontuan izan beharrekoa: Giza gorputzarekin edozelako kontaktua saihestu. Ondoeza izatekoan medikuari bereala abisatu.</p>

	<p style="text-align: center;">O Errekariak</p>	<p>Sailkaketa: (Peroxido organikoak): Beste substantzia batzuekin kontaktuan, bereziki substantzia sukoiekin, erreakzio exotermiko handia eragiten dituzten substantzia edo prestakinak. Hasitako suak bizitu ditzakete eta bere itzalketa eragotzi.</p> <p>Kontuan izan beharrekoa: Erregaiekin edozelako kontaktua saihestu.</p>
	<p style="text-align: center;">Xn Kaltegarriak</p>	<p>Sailkaketa: Bere inhalazio, irensketa edo larruazalaren bidezko absortzioak, osasunerako kalte handiak edo kronikoak eragin ditzake. Ugalketarako arriskuak, inhalazioagatik sentibilizazio arriskua, R42rekin sailkaketan.</p> <p>Kontuan izan beharrekoa: Giza gorputzarekin edozelako kontaktua saihestu.</p>
	<p style="text-align: center;">Xi Narritagarriak</p>	<p>Sailkaketa: Korrosiboak ez izanik, larruazalarekin edo mukosetan kontaktu labur edo etengabea izanez gero, hanturak sortarazi ditzakete. Sentibilizazio arriskua larruazalarekin kontaktua izanez gero. R43rekin sailkaketan.</p> <p>Kontuan izan beharrekoa: Begi edo azalarekin kontaktua saihestu. Ez arnastu produktua zuzenean.</p>
	<p style="text-align: center;">N Ingurugirorako arriskutsua</p>	<p>Sailkaketa: Uretan edo uretatik kanpo askatuz gero, berehala edo geroago, oreka naturalaren aldaketa dela eta, ekosistema kaltetu dezake. Substantzia jakin batzuk edo bere transformazio produktuek, hainbat konpartimentu aldeberean aldatu ditzakete.</p> <p>Kontuan izan beharrekoa: Ez utzi produktua kanalizazioetara etaluzorura heltzen ingurugiroa ez kutsatzeko. Hondakin bereziak ezabatzeko baldintzak ondo aztertu.</p>

WEB ORRI INTERESGARRIAK

Bizkaiko Foru Aldundia: www.bizkaia.net

Eusko Jaurlaritza: www.euskadi.net/medioambiente
www.ingurumena.es
www.gurelurra.net

Ingurugiro ministerioa: www.mma.es

Europako Gizarte Funtsa-ko administratzaile unitatea: www.mtas.es/uafse/

Elikagaien segurtasuna eta ingurumena: www.fao.org/docs/WSSD02_es.pdf

ERREFERENTZIAKO LEGERIA

- Europako Parlamentuko eta kontseiluko, 2001eko martxoaren 19-ko (CE) 761/2001 araudia. Honek, organizazio desberdinak ingurumenari buruzko ikuskaritza eta kudeaketa sistemaza batzea onartzen du.
- Kutsaduraren aurrezaintza eta kontrolari buruzko uztailak 1eko 16/2002 legea.
- Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 legea.
- Ekainaren 3-ko 15/1994 legea, zeinek, giza osasun eta ingurumenarentzako arriskuak aurrezaintzeko asmoarekin, beste gauz abatzuen artean genetikoki eraldatutako organismoen merkaturatzea zehazten duen araubide juridikoa ezartzen du.
- Ur legeari buruzko testu bategina onartzen den Uztailaren 20-ko 1/2001 errege dekretua.
- Animaliek transmiti ditzaketen entzefalopatia espongiformeen kontrola eta zaintza koordinatzen duen programa integrala ezartzen duen Abenduaren 22-ko 3454/2000 errege dekretua.



Ingurumen Jardunbide Egokien

Eskuliburua